MOTZEAN

30 bat traktorek martxa egin dute Gasteizen, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa "lehorte eremu" izendatzea eskatzeko.

Zubietako erraustegian sutea gertatu zen abuztuaren 19an, bolumen handiko hondakinen birrintzailearen barruan. LABek salatu du zuzendaritzaren erantzuna ez zela pertsonak babestea izan, "langileak zuzenean arrisku gunera bidaltzea baizik".

Tomas Soraluze 'Epelde' trikitilari azkoitiarra hil da. *Kupela* kantu ezaguna berak eta Larrañaga pandero jotzaileak osatutakoa da.

Nafarroako Gobernuak Memoria eta Bizikidetzarako egoitza inauguratu du Iruñeko Rozalejo jauregian. Adierazi du Nafarroan izandako indarkeria politiko mota guztiak gogoratuko dituela.

Abuztuaren 26an Nepalen eta Tibeten izandako luiziak ehunka pertsona hil eta milaka desagertu utzi ditu. Hondamendiak suntsitu egin ditu mugako zenbait eskualde.

Meta konpainiak Instagram eta Facebook sareak manipulatu eta adin txikikoengan adikzioa sustatzea egotzita gainean zuen epaiketari iskin egiteko, 17.100 milioi dolar ordaindu ditu. Adin txikikoak babesteko hainbat neurri hartzera behartu dute.

2.600 pertsona baino gehiago hil dira Kongo Errepublika Demokratikoan ebola epidemiagatik. Maiatzetik hona, egunero 90 kasu erregistratu dituzte.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com